



PRENTSA-OHARRA

Ziudadelan egongo da ikusgai Nafarroan bizi diren 12 artistaren lanez osatutako erakusketa, artearekiko interesa batu eta bildu nahi duen proiektu batean

Erakusketa Mistoen Eraikineko 1. solairuan bisitatu daiteke, gaur hasi eta maiatzaren 13ra bitarte

Iruñeko Ziudadelan egongo da ikusgai, gaur hasi eta maiatzaren 13ra bitarte, *Nafarroan bizi diren artistak* erakusketa. Beste herrialde batzuetatik iritsi diren hamabi artista dira. Hamabi istorio, hamabi adierazpide. Bulgariarrak dira, txiletarrak, txinatarrak, argentinarrak, japoniarrak, boliviarrak, mexikarrak... Pintoreak, marrazkilariak, argazkilariak, eskultoreak... Komunean bi gauza dituzten pertsonak dira: Nafarroan bizi direla eta artearekiko interesa. Eta gaurtik aurrera, lotzen eta biltzen dituen proiektu hau ere.

Artista horietako bati, Juan Manuel Fernández Cuicháni hain zuzen, bururatu zitzaion ideia. Jatorriz ekuadortarra da eta Iruñean bizi da; ez du ukatzen migratzailea denik, are gehiago, ongi kontzientea da, eta horrek aukera ematen dio bere artean ikuspuntu globaletik lan egiteko, eta ikuspuntu hori zabalagoa izaten da, batzuetan gutxiago bidaiatu duen bertako artista batena baino. Cuichánek urteak eman ditu bere egoerari bueltak ematen, bai eta Nafarroan jaio ez baina bertan bizi diren eta artea ogibide edo zaletasun gisa duten beste lagun askoren egoerari ere. Gogoeta horren ondorioz sortu da bere proposamena: erakusketa bat eskaintzea egile-multzo bati haien lana hobeki ezagutarazteko aukera emate aldera.

Erakusketa horrela aurkeztu dute gaur goizeko prentsaurrekoan erakusketaren artista eta komisario Cuichánek berak eta Kultura eta Hezkuntzako Alorreko zuzendari Maitena Muruzabalek. Erakusketa Ziudadelako Mistoen eraikineko lehenengo solairuan bisitatu ahalko da, ordutegi honetan: asteartetik ostiralera, 18:00etatik 20:30era; larunbatetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara. Apirilaren 30etik aurrera arratsaldeko ordutegia ordu erdian atzeratuko da.

Hamabi begirada

Hona *Nafarroan bizi diren artistak* erakusketa osatzen dutenen zerrenda: Lázaro H. Cano, Keiko Hoshino, Cristina del Rosso, Yasen Kazandjiev, Andrea Morton, Esteban Román, Félix



Manzaneda, Rumyana Teneva, Svieta Kaschena, César Viteri, Haisul Cychang eta Juan Manuel Fernández Cuichán bera.

Guzti-guztiak hemen bizi diren artistak dira, eta inguruabar horrek nolabait lausotzen du haien jatorria. Izan ere, Pedro Luis Lozanok erakusketaren katalogoan dioenarekin bat, haren begiradak ez du, beraz, nazionalitatea edo jatorrizko kultura ardatz, nahiz eta batzuetan horren trazu erabakigarriak egon –baina ez beti–, baizik eta artisten egungo errealitatea, hau da, Nafarroan bizitzea. “Eta hori ñabardura garrantzitsua da; izan ere, erakusketaren funtsa da, artista bakoitzaren lana ezagutarazteaz gain, egile horiek beren lan eta presentziarekin gure gizarteari, haien gizarteari zerbait emateko, hura aberasteko duten gogoia ikusaraztea”.

Lozanok dio horiek guztiak gure errealitatearen parte izateaz gain, gure inguru sozial eta estetikoa aberasten eta zabaltzen dutela, pertsona horien bizi-esperientziak, sustrai kulturalak edo ibilbide artistikoak direla medio. “Azken batean, egile hauen presentzia hazteko aukera bat da, bi aldetatik: atzerritarrak direlako, eta artistak direlako. Bi alderdi horietatik berrikuntzak eta aurkikuntzak ekar ditzakete, eta agian beste posizio batetik ez ginateke gai izanen horiei antzemateko edo begiratzeko” gaineratzen du.

HAMABI ARTISTAK ETA HAIEN OBRAK

- Lázaro H. Cano (Habana, Kuba): *Crazy for you* (eskultura)
- Keiko Hoshino (Japonia): *Bi ahizpa festan* (akuarela)
- Juan Manuel Fernández Cuichán (Quito, Ekuador): *Besarkadakmusuak* (pintura akrilikoan)
- Cristina del Rosso (Italia-Argentina): *Mercaderes* (olio-pintura mihise gainean)
- Yassen Kazandjiev (Bulgaria): *Harri-jolasak* (argazki digital/analogiko mistoa)
- Andrea Morton (Argentina): *Denbora* (metalezko eskultura)
- Esteban Román (Ciudad Juárez, Mexiko): *Dunan gora* (argazki digitala)
- Félix Manzaneda (La Paz, Bolivia): *Phukhu* (marrazkia kartoi gainean)
- Rumyana Teneva (Bulgaria): *Autofotoa itsasoarekin* (argazki digital/analogiko mistoa)
- Svieta Kaschena (Ukraina): *Arbaiungo arroila* (olio-pintura mihise gainean)
- César Viteri Torres (Quito, Ekuador): *Sitgeseko txokoa* (pintura sennelier paperean)
- Haisul Cychang (Taiwan): *Idazkera boteretsua | saila* (olio-pintura mihise gainean)

Iruñean, 2018ko apirilaren 6an

